ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

# 2018ko ABENDUAREN 27an EGINIKO EZ OHIKO UDAL BATZAREN AKTA

2018ko abenduaren 27an, Asteasuko Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 20:05 orduetan, Maria Pilar Legarra Cortajarena Alkate anderearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren Zinegotziak bildu ziren:

ALKATEA: Maria Pilar Legarra Cortajarena (Asteasu Batuz, AB)

ZINEGOTZIAK: Jose Ramon Ayerza Sarasua (Asteasu Batuz, AB)
Joseba Txapartegi Nieve (Asteasu Batuz, AB)
Maria Pilar Iturbe Urdangarin (Asteasu Batuz, AB)
Antonio Elicegui Orbegozo (Asteasu Batuz, AB)

IDAZKARIA: Jon Gil Beltza.

Ezin direla etorri aurretik adierazi dute: Haritz Mugika Lasa (Asteasu Batuz, AB), Aitor Usandizaga Izaguirre (Asteasu Batuz, AB), Luke Uribe-Etxebarria Apalategi (EAJ/PNV).

Alkate andreak, goian adierazitako orduan, irekitzat ematen du Udal Osoko Bilkura:

## GAI ZERRENDA:

1. **2018ko Udal aurrekontuen 2018/08 Kreditu Aldaketa: onespena**

2. **Asteasuko Lege Zaharren Enparantzaren berrurbanizazio lanak emateko kontratuaren 1. aldaketa**

**…/…**

Lege Zaharren Enparantza, z/g, 20159 ASTEASU (Gipuzkoa) / Tel.: 943 69 19 07 / Fax: 943 69 31 06 / e-mail: udala@asteasu.eus

## LEHENENGO PUNTUA

**2018ko Udal aurrekontuen 2018/08 Kreditu Aldaketa: onespena**

Alkate andreak segidan jasoko den proposamena sartu du gai-zerrendan, presazko arrazoi hauek direla eta:

2018ko abenduaren 10ean Asteasu Lantzen, S.A.ren Administrazio Batzordeak aipatu baltzuak Asteasuko Udalarekin zuen zorra kitatzea erabaki zuen eta, bere ondorioz, 58.754,04 euroko mailegua itzultzeko erabaki zuen. Kopuru hori 2018ko abenduaren 12an gauzatu zen. Horren ondorioz, udaleko aurrekontuen kreditu aldaketa izapidetu beharra dago.

2018ko abenduaren 17an espedienteari hasiera emateko 334/2018 Alkatetza Dekretua onartu zen, eta data horretan ere eman dira legez-ezarritako txostenak.

Gauzak horrela, 2018ko aurrekontuetan aipatu kreditu aldaketa onartzeko egin behar den Udalbatzarraren data dela eta, ez da denborarik egon aurretik gaia informazio-batzordean aztertzeko; kontuan izan behar da kreditu aldaketa horrek baimenduko duela Lege Zaharren enparantzaren berrurbanizazio lanak emateko kontratuaren 1. Aldaketa espedienteari dagokion aurrekontu aplikazioa sortzea, dagokion gastua onestu ahal izateko, Udalbatzar honen gai-zerrendaren bigarren puntuan jasotakoa hain zuzen ere.

A.F.A.ren 82.3 artikuluarekin bat, Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 5 (Legarra, Ayerza, Txapartegi, Iturbe, Elicegui)
Kontrako botuak: 0
Abstentzioak: 0

Beraz, bozketaren emaitza ikusirik Udalbatzak proposamena gai-zerrendan sartzea berretsi du.

Proposamena:

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa.

Idazkari kontu-hartzaileak egindako txostena eta ziurtagiria aztertu dira. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin,

zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 31. artikuluan ezarritakoarekin.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 5 (Legarra, Ayerza, Txapartegi, Iturbe, Elicegui)
Kontrako botuak: 0
Abstentzioak: 0

Beraz, Udalbatzarrak

ERABAKIA HARTU DU

**Lehenengoa.-** Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

**GASTUAK**

| **Kap.** | **Izena** | **Euroak** |
|---|---|---|
| 6 | INBERTSIO ERREALAK | 58.754,04 |
| **GAITUTAKO KREDITUAK GUZTIRA** | | **58.754,04** |

**SARRERAK**

| Kap. | Izena | Euroak |
|---|---|---|
| 8 (SARRERAK) | FINANTZA AKTIBOAK | 58.754,04 |
| **FINANTZAKETA GUZTIRA** | | **58.754,04** |

**Bigarrena.-** Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailetza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa.

**BIGARREN PUNTUA.**

**Asteasuko Lege Zaharren Enparantzaren berrurbanizazio lanak emateko kontratuaren 1. aldaketa**

Alkate andreak segidan jasoko den proposamena sartu du gai-zerrendan, presazko arrazoi hauek direla eta:

Udaleko Arkitekto aholkulariak, erreferentziazko Urbanizazio Proiektuaren idazle gisa, eta Obra Zuzendari gisa, hurrengo dokumentua sinatu du 2018ko abenduaren 12an: “DOCUMENTO CORRESPONDIENTE A LA PROPUESTA DE MODIFICACIÓN DEL PROYECTO DE URBANIZACIÓN DE LA PLAZA DE ASTEASU”.

Halaber, horri hurrengo dokumentua erantsi zaio: “PRIMERA MODIFICACIÓN DEL PROYECTO DE URBANIZACIÓN LEGE ZAHARREN ENPARANTZA ASTEASU – MEMORIA”, 2018ko abenduaren 12koa.

Alkate andreak 2018ko abenduaren 13an sinatu du kontratua aldatzeko beharraren memoria.

Hau da proposatutako aldaketaren helburua: eraikin publikoen arteko berokuntza-zentralizatu zerbitzua emateko bero-isolatua sarea txertatzea. Obra horiek kontratuan jasotako obrak bukatu eta gero egingo balira, bizilagunentzat eragozpen nabarmenak sortuko lituzke; halaber, kosteari dagokionez, horiek gora egingo lukete nabarmenki.

Udaleko bitarteko Idazkari Kontuhartzaileak 2018ko abenduaren 14an egin du hari dagokion txostena.

Kontratistari entzunaldi izapidea eman zitzaion 2018ko abenduaren 14an; horrek aldeko erantzuna eman du 2019ko abenduaren 19an.

Udaleko arkitekto aholkulariak eginiko dokumentuan adierazi da guztiz beharrezkoa dela 2019ko urtarrilaren 7rako kontratuaren aldaketa indarrean egotea, izan ere hori egin ezean obrak etendu beharko lirateke.

Gauzak horrela, ez da denborarik egon aurretik gaia informazio-batzordean aztertzeko.

A.F.A.ren 82.3 artikuluarekin bat, Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 5 (Legarra, Ayerza, Txapartegi, Iturbe, Elicegui)
Kontrako botuak: 0
Abstentzioak: 0

Beraz, bozketaren emaitza ikusirik Udalbatzak proposamena gai-zerrendan sartzea berretsi du.

Proposamena:

| | |
|---|---|
| ASTEASUKO LEGE ZAHARREN ENPARANTZAREN BERRURBANIZAZIO LANAK EMATEKO KONTRATUAREN 1. ALDAKETA | 1ª MODIFICACIÓN DEL CONTRATO DE EJECUCIÓN DE OBRAS DE REURBANIZACIÓN DE LEGE ZAHARREN ENPARANTZA DE ASTEASU |
| Udalbatzarrak, 2018ko uztailaren 27ko bilkuran, erabaki hauek hartu zituen: | El Pleno del Ayuntamiento, en sesión celebrada el 27 de julio de 2018, adoptó los siguientes acuerdos: |
| *“LEHENA. Onestea Lege Zaharren enparantzaren urbanizazioaren* | *“PRIMERO. Aprobar el Proyecto de Ejecución de Urbanización de Lege* |

*egikaritze-proiektua, Soroa Arquitectos, S.L.P.k 2018ko ekainean idatzita.*

*BIGARRENA. Asteasuko Lege Zaharren Enparantzaren berrurbanizazio lanak egiteko xedea duen jardunbide irekia erraztuaren bidez esleitzeko kontratazio-espedientea onartzea.*

*HIRUGARRENA. Kontratua gauzatzeko erabiliko diren Administrazio Baldintza Zehatzen Agiria onartzea.*

*LAUGARRENA. Kontratu horri dagokion gastua onestea; horren gehienezko prezioa 801.317,64 eurokoa izango da, horietatik kontratuaren printzipalari 662.245,98 euro dagozkio eta 139.071,66 euro %21ko BEZari.*

*Gastua honako aurrekontu-aplikazioari lotuko zaio: 11 00 601 150 00 01. 2018*

*BOSGARRENA. Kontratazio jardunbideari hasiera ematea eta dagokion iragarkia argitaratzea Udaleko Kontratatzailearen Profilean, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Kontratatzailearen Profilean integratua".*

Udalbatzarrak, 2018ko irailaren 14ko bilkuran, erabaki hauek hartu zituen:

*"LEHENA. SASOI ERAIKUNTZAK, S.L.ri LEGE ZAHARREN ENPARANTZAREN BERURBANIZAZIO LANAK EMATEKOA (PROZEDURA IREKIA, IZAPIDETZE ERRAZTUA ETA ADJUDIKAZIO-IRIZPIDE UGARI)*

*Zaharren Enparantza, redactado por Soroa Arquitectos, S.L.P. en junio de 2018.*

*SEGUNDO. Aprobar el expediente de contratación para la adjudicación, mediante procedimiento abierto simplificado, de las obras de reurbanización de Lege Zaharren Enparantza de Asteasu.*

*TERCERO. Aprobar el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares que regirá el contrato.*

*CUARTO. Aprobar el gasto que corresponde a este contrato; el precio máximo será de 801.317,64 euros, ascendiendo el principal del contrato a 662.245,98 euros, y 139.071,66 euros al 21% de IVA aplicable.*

*Imputar el gasto a la siguiente aplicación presupuestaria: 11 00 601 150 00 01. 2018*

*QUINTO. Disponer la apertura del procedimiento de contratación, publicar el correspondiente anuncio en el Perfil municipal de Contratante, integrado en el Perfil de Contratante de Contratación Pública de Euskadi".*

El Pleno del Ayuntamiento, en sesión celebrada el 14 de septiembre de 2018, adoptó, entre otros, los siguientes acuerdos:

*"PRIMERO. Adjudicar a SASOI ERAIKUNTZAK, S.L. el contrato de EJECUCIÓN DE OBRAS DE REURBANIZACIÓN DE LEGE ZAHARREN ENPARANTZA POR PROCEDIMIENTO ABIERTO,*

*kontratua esleitzea, 648.802,39€ nagusia, eta 136.248,50€ BEZa kopuruan, eta 5 urteko bermearekin; horiek guztiak erabaki honetan adierazi diren aurkeztutako proposamenaren ezaugarri eta abantailekin bat".*

*TRAMITACIÓN SIMPLIFICADA Y VARIOS CRITERIOS DE ADJUDICACIÓN, por importe de 648.802,39€ de principal y 136.248,50€, correspondientes al IVA, y 5 años de garantía; todo ello conforme a las características y ventajas de la propuesta presentada que se detallan en el cuerpo del presente acuerdo".*

Kontratua 2018ko irailaren 20ko datarekin sinatu zen.

El contrato fue formalizado el 20 de septiembre de 2018.

Zuinketa-akta 2018ko urriaren 10ean sinatu zen.

El acta de replanteo fue suscrita el 10 de octubre de 2018.

Udaleko Arkitekto aholkulariak, erreferentziazko Urbanizazio Proiektuaren idazle gisa, eta Obra Zuzendari gisa, hurrengo dokumentua sinatu du 2018ko abenduaren 12an: "DOCUMENTO CORRESPONDIENTE A LA PROPUESTA DE MODIFICACIÓN DEL PROYECTO DE URBANIZACIÓN DE LA PLAZA DE ASTEASU".

El Arquitecto asesor municipal, en su condición de redactor del Proyecto de Urbanización de referencia y en su condición de Director de la Obra, ha emitido con fecha de 12 de diciembre de 2018 el siguiente documento: "DOCUMENTO CORRESPONDIENTE A LA PROPUESTA DE MODIFICACIÓN DEL PROYECTO DE URBANIZACIÓN DE LA PLAZA DE ASTEASU".

Halaber, horri hurrengo dokumentua erantsi zaio: "PRIMERA MODIFICACIÓN DEL PROYECTO DE URBANIZACIÓN LEGE ZAHARREN ENPARANTZA ASTEASU – MEMORIA", 2018ko abenduaren 12koa.

Así mismo, ha acompañado al mismo del siguiente documento: "PRIMERA MODIFICACIÓN DEL PROYECTO DE URBANIZACIÓN LEGE ZAHARREN ENPARANTZA ASTEASU – MEMORIA", de fecha de 12 de diciembre de 2018.

Alkate andreak 2018ko abenduaren 13an sinatu du kontratua aldatzeko beharraren memoria.

La Sra. Alcaldesa ha suscrito una memoria justificativa de la necesidad de modificación del contrato, de fecha 13 de diciembre de 2018.

Hau da proposatutako aldaketaren helburua: eraikin publikoen arteko berokuntza-zentralizatu zerbitzua emateko bero-isolatua sarea txertatzea. Obra horiek kontratuan jasotako obrak

El objeto de la modificación propuesta consiste en incluir una red calorifugada para la prestación de un servicio de calefacción centralizada entre edificios públicos. La ejecución de dicha

bukatu eta gero egingo balira, bizilagunentzat eragozpen nabarmenak sortuko lituzke; halaber, kosteari dagokionez, horiek gora egingo lukete nabarmenki. Gauzak horrela, hauek dira proposatutako aldaketak eskatzen dituen helburuak:

- Egin beharreko unitateen kosteak gora egingo lukete.
- Plazaren azaleraren akaberak hautsi eta berriro ipini beharko lirateke.
- Sareak ezartzeko laginak egin beharko lirateke.
- Bizilagunentzat eragozpenak, gaur egun ematen ari direnei gehitzen zaizkienak.
- Eragindako zonetan azken-akaberetan diferentziak.

infraestructura una vez finalizadas las obras objeto del contrato llevaría aparejado, además de un sobrecosto importante, unas molestias al vecindario importantes. Por lo tanto, los motivos que aconsejan la modificación actual del contrato son las siguientes:

- Sobrecosto por aumento de unidades de obra a ejecutar.
- Necesidad de romper y reponer el acabado superficial de la plaza.
- Necesidad de realizar catas para la ubicación de la red.
- Molestias al vecindario, sumadas a las existentes en la actualidad.
- Acabado final diferente al previo, en las zonas afectadas.

Ikusirik Udaleko bitarteko Idazkari Kontuhartzaileak 2018ko abenduaren 14an eginiko txostena.

A la vista del informe, de 14 de diciembre de 2018, del Secretario Interventor interino.

Kontratistari entzunaldi izapidea eman ondoren.

Tras haber otorgado trámite de audiencia al contratista.

SPKLaren 203 eta hurrengo artikuluetan jasotakoarekin bat, eta bereziki, administrazio-baldintza agiri zehatzetan jaso ez diren aldaketen araubideari buruzkoa (205 artikulua), eta obra kontratuaren aldaketari buruz SPKLaren 242 artikuluan jasotakoarekin bat.

Considerando lo previsto en los artículos 203 y siguientes LCSP, y en particular, el régimen de las modificaciones no previstas en el pliego de cláusulas administrativas particulares (artículo 205), así como lo establecido en el artículo 242 LCSP con relación a la modificación del contrato de obra.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Se ha sometido la propuesta a votación, siendo el resultado el siguiente:

Aldeko botuak: 5 (Legarra, Ayerza, Txapartegi, Iturbe, Elicegui)
Kontrako botuak: 0
Abstentzioak: 0

Votos a favor: 5 (Legarra, Ayerza, Txapartegi, Iturbe, Elicegui)
Votos en contra: 0
Abstenciones: 0

Gauzak horrela, eta espedientean jasota dauden dokumentuak ikusirik Udalbatzak,

Por todo cuanto antecede, y a la vista de la documentación que obra en el expediente, el Pleno del Ayuntamiento

HAU ERABAKI DU

HA ACORDADO

LEHENA. Onestea "ASTEASUKO LEGE ZAHARREN ENPARANTZA URBANIZAZIO PROIEKTUAREN 1. ALDAKETA – MEMORIA", Soroa Arquitectos, S.L.P.k 2018ko abenduaren 12an idatzita.

PRIMERO. Aprobar la "PRIMERA MODIFICACIÓN DEL PROYECTO DE URBANIZACIÓN LEGE ZAHARREN ENPARANTZA ASTEASU – MEMORIA", redactado por Soroa Arquitectos, S.L.P. el 12 de diciembre de 2018.

BIGARRENA. LEGE ZAHARREN ENPARANTZAREN BERURBANIZAZIO LANAK EMATEKO kontratuaren 1. aldaketa espedientea onartzea, eta SASOI ERAIKUNTZAK, S.L.-ri esleitzea, aurreko puntuan onartutako proiektuarekin bat. Kontratuaren 1. aldaketaren kopurua hau izango da: horietatik, kontratuaren printzipalari 42.315,45 euro dagozkio eta 8.886,24 euro %21eko BEZari.

SEGUNDO. Aprobar el expediente de 1ª modificación del contrato de ejecución de las obras de EJECUCIÓN DE OBRAS DE REURBANIZACIÓN DE LEGE ZAHARREN ENPARANTZA, y adjudicarlo a la empresa SASOI ERAIKUNTZAK, S.L., según el proyecto aprobado en el punto anterior. Asciende el principal de la 1ª modificación del contrato a 42.315,45 euros, y 8.886,24 euros al 21% de IVA aplicable.

HIRUGARRENA. Kontratu horri dagokion gastua onestea; horren gehienezko prezioa 51.201,69 eurokoa izango da, horietatik kontratuaren printzipalari 42.315,45 euro dagozkio eta 8.886,24 euro %21eko BEZari.

TERCERO. Aprobar el gasto que corresponde a este contrato; el precio máximo será de 51.201,69 euros, ascendiendo el principal de la 1ª modificación del contrato a 42.315,45 euros, y 8.886,24 euros al 21% de IVA aplicable.

Gastua honako aurrekontu-aplikazioari lotuko zaio: 11 00 601 150 00 01. 2018

Imputar el gasto a la siguiente aplicación presupuestaria: 11 00 601 150 00 01. 2018

LAUGARRENA. SASOI ERAIKUNTZAK, S.L.ri eskatzea kontratu hori administrazio - dokumentuan formalizatzeko, bost (5) laneguneko epean, hura adjudikatu izanaren jakinarazpena jaso eta

CUARTO. Requerir a SASOI ERAIKUNTZAK, S.L. para que proceda a la formalización de dicho contrato en el plazo de cinco (5) días hábiles a contar desde el siguiente al de la notificación de la adjudicación.

hurrengo egunetik hasita.

Kontratistak hala eskatuz gero, eskritura publikoan formalizatu ahal izango da kontratua, eta haren kontura izango dira kontratua egilestearen ondoriozko gastuak.

El contrato podrá formalizarse en escritura pública si así lo solicita el contratista, corriendo a su cargo los gastos derivados de su otorgamiento.

Aurretik, behin-betiko bermea egokitu beharko da, aldatutako prezio berriarekin bat egiteko, 2.115,77 euroko kopuruarekin, SPKLren 109.3 artikuluarekin bat.

Previamente, deberá reajustarse la garantía definitiva, para que guarde la debida proporción con el nuevo precio modificado, en el siguiente importe: 2.115,77 euros, de conformidad con el artículo 109.3 LCSP

BOSGARRENA. Alkate andreari baimena ematea kontratua sinatzeko eta, hala gertatzen bada, eman daitezkeen akats formalak zuzentzeko.

QUINTO. Autorizar a la Sra. Alcaldesa para que formalice el contrato y, en su caso, rectifique los errores formales que pudieran producirse.

SEIGARRENA. Erabaki honen berri ematea interesdunei, eta argitaratzea kontratazio - organoaren kontratatzailearen profilean.

SEXTO. Notificar el presente acuerdo a los interesados, y publicarlo en el perfil de contratante del órgano de contratación.

ZAZPIGARRENA. Kontratazio - organoaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da kontratua formalizatu izanaren dokumentua, kontratuarekin berarekin batera, gehienez hamabost eguneko epean, kontratu burutzen denetik hasita.

SÉPTIMO. La formalización del contrato deberá publicarse, junto con el correspondiente contrato, en un plazo no superior a quince días tras el perfeccionamiento del contrato en el perfil de contratante del órgano de contratación.

Eta beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat ematen du arratsaldeko 20:14 orduak direnean, nik Idazkariak, bertan jasotakoaren akta hau luzatzen dudalarik.

Asteasun, 2018ko abenduaren 27an.

Alkate andrea

Bitarteko Idazkari-Kontuhartzailea